

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	ZALDI-AZIENDAREN ELIKADURA ETA MANEIU OROKORRA OINARRIZKO HEZIKETAN ETA ZALDI-JARDUERETAN PARTE HARTZEN DUENEAN	Iraupena	50
		Espezifikoa	
Kodea	UF0379		
Lanbide-arloa	NEKAZARITZA		
Lanbide-eremua	Abeltzaintza		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Zaldi-hazkuntza	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Moxalen oinarrizko heziketa eta jolas-, lan- eta kirol-helburuetarako, eta erakusketetan eta/edo lehiaketetan aurkezteko zaldien maneia gainbegiratzea.	Iraupena	180
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Moxalen oinarrizko heziketa-prozesua zaldi-aziendan.	Iraupena	90
	Jolas-, lan- eta kirol-jardueretan eta erakusketetan eta/edo lehiaketetan parte hartzen duen zaldi-aziendaren kontrola.		40

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC535_3 JOLAS-, LAN- ETA KIROL-HELBURUETARAKO, ETA ERAKUSKETETAN ETA/EDO LEHIAKETETAN AURKEZTEKO ZALDIEN OINARRIZKO HEZIKETA-LANAK ETA MANEIA GAINBEGIRATZEA gaitasun-ataleko LB5 lanbide-burutzapenarekin

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Jolas-, lan- eta kirol-jardueretan eta erakusketetan eta lehiaketetan parte hartzen duen zaldi-aziendari elikagaiak, osagarriak eta elikadura-gehirriak banatzea kontrolatzea.

EI1.1 Animalia bakoitzak garatzen duen jardueran oinarritutako elikadura-programa espezifiko bat egiteko ezinbesteko informazioa interpretatzea.

EI1.2 Egoera fisikoaren eta garatzen duen jardueraren arabera, animalia bakoitzari eman beharreko elikagai-motak, osagarriak eta elikadura-gehirriak atzematea.

EI1.3 Zaldi-aziendarentzako elikagaien, osagarrien eta elikadura-gehirrien hornidura-ekipamenduak deskribatzea, baita horien erregulazioa, garbiketa eta mantentzea ere.

EI1.4 Animalia batzuen elikadura osatzea derrigorrezkoa den kasuak adieraztea, baita kasu bakoitzerako osagarri eta gehigarri egokiak ere.

EI1.5 Jolas-, lan- eta kirol-jardueretan eta erakusketetan eta lehiaketetan parte hartzen duen zaldi-aziendari elikagaiak, osagarriak eta elikadura-gehirriak banatzeko programa bat lantzea, urteko garaiaren arabera, eta animalien jardueraren eta egoera fisikoaren arabera, hornidura-ordutegiak eta kantitate espezifikoak finkatuz.

EI1.6 Zaldi-aziendarentzako pentsuak, belarrak, bazkak, osagarriak eta elikadura-gehirriak biltegitratzeko eta kontserbatzeko irizpideak zehaztea.

EI1.7 Ustiategi bateko jolas-, lan- eta kirol-jardueretan eta erakusketetan eta lehiaketetan parte hartzen duen zaldi-aziendaren elikadura-programaren kontrola egitea, anoen banaketa, ezaugarriak, kalitatea eta kantitatea egokiak direla egiaztatuz.

EI1.8 Jolas-, lan- eta kirol-jardueretan eta erakusketetan eta lehiaketetan parte hartzen duen zaldi-aziendari elikagaiak, osagarriak eta elikadura-gehirriak banatzeko, nekazaritzako eta abeltzaintzako industriaren sektorerako ingurumen-jardunbide egokien eskuliburuan, laneko arriskuak prebenitzeko araudian eta animalia-ongizatearekin lotutako jardun-irizpideetan jasotako espezifikazioak identifikatzea.

A2: Jolas-, lan- eta kirol-jardueretan eta erakusketetan eta lehiaketetan parte hartzen duen zaldi-azienda osasun-egoera onean mantentzeko egin behar zaizkion higiene-zainketa espezifikoak eta ezinbesteko osasun-neurriak gainbegiratzea.

EI2.1 Ustiategira zaldi-azienda berria iristen denean izan daitezkeen gaixotasunak sartzea eta sakabanatzea eragozteko hartu beharreko higiene- eta osasun-jarraibideak zerrendatzea.

EI2.2 Jolas-, lan- eta kirol-jardueretan eta erakusketetan eta lehiaketetan parte hartzen duen zaldi-aziendari egiten zaizkion oinarrizko garbiketa- eta higiene-lanak zehaztea.

EI2.3 Animalia bizidunetan edo irudikatzen dituen grafiko batean, gorputz-atalak atzematea zaldi-aziendarentzako tratamendu higieniko-sanitario desberdinak aplikatzeko.

EI2.4 Jolas-, lan- eta kirol-jardueretan eta erakusketetan eta lehiaketetan parte hartzen duen zaldi-aziendari higiene- eta osasun-neurriak aplikatzeko materialak eta ekipamenduak zehaztea, baita horien erabilera-moduak, funtzionamendua eta mantentzea ere.

EI2.5 Jolas-, lan- eta kirol-jardueretan eta erakusketetan eta lehiaketetan parte hartzen duen zaldi-aziendarentzako prebentzio-programa sanitarioa planifikatzea.

EI2.6 Jolas-, lan- eta kirol-jardueretan, eta erakusketetan eta lehiaketetan parte hartzen duen zaldi-aziendari eragin diezaioketen gaixotasun jakin batzuen seinale eta sintoma nagusiak identifikatzea.

EI2.7 Jolas-, lan- eta kirol-jardueretan, eta erakusketetan eta lehiaketetan parte hartzen duen zaldi-aziendaren zaintza-irizpideak, isolamendu-neurriak eta zainketa aringarriak zehaztea.

EI2.8 Jolas-, lan- eta kirol-jardueretan, eta erakusketetan eta lehiaketetan parte hartzen duen zaldi-aziendarekin egiten diren higiene- eta osasun-jardunen erregistroak behar bezala betetzea, ustiatzearen ezarritako protokoloen arabera.

EI2.9 Jolas-, lan- eta kirol-jardueretan, eta erakusketetan eta lehiaketetan parte hartzen duen zaldi-azienda duten zaldi-abeltzaintzako ustiatze-gietarako biosegurtasunari buruz (gorpuen, hondakinen eta azpiproduktuen tratamendua) ezarritako oinarrizko gomendioak definitzea.

EI2.10 Jolas-, lan- eta kirol-jardueretan, eta erakusketetan eta lehiaketetan parte hartzen duen zaldi-aziendaren higiene- eta osasun-jardunetarako, nekazaritzako eta abeltzaintzako industriaren sektorerako ingurumen-jardunbide egokien eskuliburuan, laneko arriskuak prebenitzeko araudian eta animalia-ongizatearekin lotutako jardun-irizpideetan jasotako espezifikazioak identifikatzea.

A3: Jolas-, lan- eta kirol-jardueretan, eta erakusketetan eta lehiaketetan zaldi-aziendaren partaidetzarako eta prestaketarako ezinbesteko giza baliabideak koordinatzea eta kontrolatzea, errendimendu egokiak bermatze aldera, ezarritako helburuen eta jardueren arabera.

EI3.1 Langile bakoitzarentzako zereginak eta erantzukizunak banatzea eta esleitzea, ezarritako helburuak betetze aldera.

EI3.2 Aholkularitza teknikoak ematea langileei, garatu beharreko lanpostuarekin lotutako alderdien inguruan.

EI3.3 Larrialdietarako erantzuna zehaztea, larritasuna balioetsiz, jarduera geldituz, gertakizunaren berri emanez, eta dagokion plana aplikatuz.

EI3.4 Lanean zehar gerta daitezkeen arazoak edo gatazkak identifikatzea, eta izan daitezkeen konponbideak zehaztea.

EI3.5 Lan-txostenak eta -parteak lantzea, ordutegi-kontrola, errendimendua eta kostuak jasoz, egindako jardueren emaitzak ebaluatzeko.

EI3.6 Jolas-, lan- eta kirol-jardueretan eta erakusketetan eta lehiaketetan parte hartzen duen zaldi-aziendarekin egiten diren jardueretan behar diren giza baliabideen koordinaziorako eta kontrolerako, laneko arriskuak prebenitzeko araudian eta animalia-ongizatearekin lotutako jardun-irizpideetan jasotako espezifikazioak identifikatzea.

Edukiak

- Jolas-, lan- eta kirol-jardueretan, eta erakusketetan eta lehiaketetan parte hartzen duen zaldi-aziendaren ezaugarri fisiologiko orokorrak.**
 - o Digestio-aparatuaren fisiologia: ezaugarri morfologikoak eta funtzionamendua.
 - o Arnas aparatuaren fisiologia: ezaugarri morfologikoak eta funtzionamendua.
 - o Zirkulazio-aparatuaren fisiologia: ezaugarri morfologikoak eta funtzionamendua.
 - o Lokomozio-aparatuaren fisiologia: ezaugarri morfologikoak eta funtzionamendua.
 - o Jolas-, lan- eta kirol-jardueretan eta erakusketetan eta lehiaketetan parte hartzen duten zaldi-arraza nagusien ezaugarri fisiologiko bereizgarriak.
- Jolas-, lan- eta kirol-jardueretan eta erakusketetan eta lehiaketetan parte hartzen duen zaldi-aziendarentzako elikaduraren funtsezko kontzeptuak.**
 - o Elikagaien printzipio nutritiboak: ezaugarriak.
 - o Elikagaien digerigarritasuna.
 - o Elikagai-motak.
 - o Jolas-, lan- eta kirol-jardueretan eta erakusketetan eta lehiaketetan parte hartzen duen zaldi-aziendaren elikadurako osagarrien eta gehigarrien ezaugarriak eta garrantzia.
 - o Jolas-, lan- eta kirol-jardueretan eta erakusketetan eta lehiaketetan parte hartzen duen zaldi-aziendarentzako elikagaiak, osagarriak eta elikadura-gehirgarriak banatzeko, kontserbatzeko eta biltegitratzeko metodoak, ekipamenduak eta jarraibideak.
- Jolas-, lan- eta kirol-jardueretan eta erakusketetan eta lehiaketetan parte hartzen duen zaldi-aziendaren higiene-zainketak.**
 - o Garbiketa eta higiene orokorra: dutxa, eskuilatzeta, zurden eta buztanaren korapiloak kentzea eta orraztea, eta apoen zainketak.
 - o Jolas-, lan- eta kirol-jardueretan eta erakusketetan eta lehiaketetan parte hartzen duen zaldi-aziendarentzako zainketa-jarraibideak eta higiene-tratamendu espezifikokoak.
 - o Jolas-, lan- eta kirol-jardueretan eta erakusketetan eta lehiaketetan parte hartzen duen zaldi-aziendaren zainketarako eta higienetarako metodoak, ekipamenduak eta instalazioak.
 - o Jolas-, lan- eta kirol-jardueretan eta erakusketetan eta lehiaketetan parte hartzen duen zaldi-aziendaren higiene-zainketen erregistroak: datuak jasotzea eta kontrolatzea.
 - o Jolas-, lan- eta kirol-jardueretan eta erakusketetan eta lehiaketetan parte hartzen duen zaldi-aziendaren zainketarako eta higienetarako produktuen erregistroak: horien izakinen kontrola eta jarraibideak.
- Jolas-, lan- eta kirol-jardueretan eta erakusketetan eta lehiaketetan parte hartzen duen zaldi-aziendaren osasun-alterazioak eta derrigorrezko osasun-jardunak.**
 - o Jolas-, lan- eta kirol-jardueretan eta erakusketetan eta lehiaketetan parte hartzen duten animalien artean, gaixo daudenak identifikatzea eta detektatzea: gaixotasun-seinale eta -sintoma nabariak. Lesio eta zauri ohikoak. Ohiko prozesu patologikoak.

- o Jolas-, lan- eta kirol-jardueretan eta erakusketetan eta lehiaketetan parte hartzen duten animalientzako tratamendu zootekniko prebentiboak: horiek aplikatzeko maiztasuna, baliabideak eta moduak.
 - o Jolas-, lan- eta kirol-jardueretan eta erakusketetan eta lehiaketetan parte hartzen duten animalientzako tratamendu propedeutikoak eta terapeutikoak: horiek aplikatzeko maiztasuna, baliabideak eta moduak.
 - o Jolas-, lan- eta kirol-jardueretan eta erakusketetan eta lehiaketetan parte hartzen duten animalientzako barne- eta kanpo-parasitoak hiltzeko eta txertoak jartzeko programak: horiek aplikatzeko maiztasuna, baliabideak eta moduak.
 - o Jolas-, lan- eta kirol-jardueretan eta erakusketetan eta lehiaketetan parte hartzen duten animaliei egindako tratamendu sanitarioen erregistroak: datuak jasotzea eta kontrolatzea.
 - o Medikamentuen erregistroa: horien izakinen kontrola eta jarraibideak.
5. **Jolas-, lan- eta kirol-jardueretan eta erakusketetan eta lehiaketetan parte hartzen duen zaldi-aziendarekin lan egiten duten langileen antolakuntza eta gainbegiratzea.**
- o Langile-premiak.
 - o Lana antolatzea.
 - o Lanen esleipena.
 - o Langileen aholkularitza eta gainbegiratzea.
6. **Zaldi-aziendako animaliak ekitaldi eta lehiaketa desberdinetan inskribatzean eta erregistroan aplikatutako informatika, baita horien elikaduraren eta zainketen antolakuntza eta kontrolean ere.**
- o Material informatikoaren maneia.
 - o Jarduerarekin lotutako programa informatikoen ezagutza eta maneia.
7. **Erakusketetan eta lehiaketetan zaldi-aziendaren partaidetzarekin eta prestaketarekin lotutako araudi erregulatuak.**
- o Ingurumen-babesa
 - o Lan-arriskuen prebentzioa
 - o Animalien ongizatea.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Zaldi-hazkuntza